

2025TDIR0003
Koldotxo Guraso elkartearentzat dirulaguntza

ESKORIATZAKO UDALA ETA KOLDOTXO GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan, eta horretarako ahalmenarekin.

ETA BESTETIK, Usune Bengoa Flores, 72746059A NAN zenbakiduna, Koldotxo Guraso Elkartearen izenean eta ordezkartzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1.- Koldotxo Guraso Elkarteak, Luis Ezeizako gurasoak ordezkartzen dituen elkarte dela eta haurren hazkuntzan eta hezkuntzan eragitea duela helburu eskolarekin elkarlanean.

2.- Luis Ezeiza eskolan, Eskoriatzako haur askok ikasten duela eta Eskoriatzako Udalak aintzat hartzen duela.

3.- Koldotxo guraso elkarteak, urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituela eta horretarako dirulaguntza eskatu duela Udalean.

4.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikulua diru laguntza zuzenak emateko kasu bezala hitzarmenetan eta horiek arautzen dituzten araudietan ezarritakoaren arabera udal aurrekontuetan diru laguntza izendun bezala jasotakoak aurreikusten dituela: "Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako izendun diru laguntzat jotzen dira gutxienez bere aurrekontu zuzkidura eta onuraduna aurrekontu gastuen egoeran zehaztuta dituztenak. Diru laguntza hauen helburua berariaz zehaztuta egon beharko da dagokion lankidetzaren hitzarmenean edo diru laguntza emateko erabakian, eta edozein modutan ere, bat etorri beharko da dagokion aurrekontu kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin".

5.- 2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, seigarrena izanik, hezkuntza sustapena izenekoak.

Lerro horren D) ekintza Koldotxo Guraso Elkartearentzako dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da, elkarte horri diruz laguntzea 2024an egindako jarduerak eta eskolaz kanpoko proiektuak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen araudietan ezarritakoaren arabera, alde bietan ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmena sinatzen dutela:



BALDINTZAK LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen helburua da 2025eko ekitaldirako udal aurrekontuan Koldotxo Guraso elkartearen izenean dagoen dirulaguntza izenduna ematea. Dirulaguntza hori Koldotxo Guraso elkarteak antolatzen dituzten ekimenak finantziatzen laguntzeko da. Eskaeran adierazten den bezala, Luis Ezeiza eskola eguna eta Alluntz Naturara irteera antolatzeko.

BIGARRENA.-ARAUDI APLIKAGARRIA

Deialdi hau ondorengo arauak arautzen dute:

- Hitzarmenak
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorrak.
- 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18)
- Azken hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

HIRUGARRENA- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 2.500 euroko diru laguntza emateko 1 0400.481.323.50.01.2025 aurrekontu aplikazioaren kargura Koldotxo Guraso elkarteak antolatzen dituen ekintzek sortutako gastuak finantziatzen laguntzeko.

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak.

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

- Administrazio eta antolaketa barne kostuek ez dute laguntzarik edo diru laguntzarik izango.
- Ez dira onartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago. Beste gastu batzuk, adibidez, bulegoko material suntsikorra, telefonoa, interneterako lotura, garbitasun materiala, ibilgailuentzako erregaia eta abar "gastu justifikagaitzak" izeneko sail bakarrean jaso ahal izango dira.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte; 9. baldintzan jasotako salbuespena izan ezik.

BOSGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin. Hala ere, inolaz ere ez da gain-finantzaziorik



onartuko. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

SEIGARRENA: KOLDOTXO GURASO ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

- Dirulaguntza emateko arrazoa den jarduera egitea.

- Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.

-Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.

-Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.

- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan eskatzen zaien informazio guztia ematea.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean.

-Koldotxo Guraso Elkarteak, hezkuntza eragile den heinean, konpromisoa hartzen du euskararen normalizazioan eragiteko eta antolatzen dituen ekintzak euskaraz ere eskaintzeko; horretarako, honako urrats hauek emango ditu:

- Ekintzen dinamizatzailerak aukeratzeko orduan (ekitaldien aurkezleak, tailerretako monitoreak, puzgarrietako begiraleak, catering-etako zerbitzariak...), kontuan hartuko da bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten jakitea.
- Haurrentzako antolatzen diren jarduerak euskaraz izango dira, eta jarduerak helduei ere zuzenduta daudenean, ahalegina egingo da euskarak presentzia izan dezan.
- Udalarekiko harremanak euskaraz izango dira (ahoz zein idatziz).

-Koldotxo Guraso Elkarteak udal euskara zerbitzura jo ahal izango du argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

- Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko du Koldotxo Guraso elkarteak; horretarako, aldeztu aurretik udaleko hezkuntza zerbitzuan jardueraren iragarki-kartelaren eredu bat aurkeztu beharko du.

- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiogeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.

-Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu



bateginaren 23.artikuluaren ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuekin. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

- Ezingo da sexu-arrazoiengatik bereizkeria egiten duten jarduerarik egin.

-Jardueren parte hartzaileen datu estatistikoak sexu-generoa kontuan izanik jasoko dira.

-Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legearen ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnean.

Koldotxo elkarteak joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitezkeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

ZAPIGARRENA.-ESKAERAK AURKEZTEKO MODUAK

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona juridikoek administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoen bitartez izateko betebeharra dute. Hori horrela, dirulaguntza hau ezin da presentzialki eskatu eta telematikoki egin beharko da eskaera.

Eskaera telematikoki hori eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan egin ahal izango da, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoen (www.eskoriatza.eus) "Tramiteak" atalean. (<https://labur.eus/R9fsY>)

ZORTZIGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTEKO EPEAK

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

- 1) Zehaztutako kopuruaren% 60a ordainduko da hitzarmen hau sinatu ondoren; hurrengo dokumentazioa aurkeztu eta udal zerbitzuak egiaztatu eta gero:
 - a. Eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek:
 - i. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak gunean izatea.
 - ii. Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
 - iii. Ez duela jarduera bereko beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da.
 - iv. Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
 - v. Bere xedeei edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
 - vi. Ez duela 38/20003 Legearen 13. 2 eta 13.3 atalean jasotako debekutik.
 - b. Jardueraren programa, ondo azalduta zer egin nahi den, lortu nahi diren helburuak eta ekitaldi eta egitasmoaren hizkuntza.
 - c. Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.



- 2) Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 9. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

BEDERATZIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Hitzarmenaren helburu diren jarduerak amaitu eta HILABETERA, eta edozein modutan ere, urte honen azaroaren 19a baino lehen, Koldotxo Guraso elkarteak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu euskarri digitalean Udal Erregistro Orokorrean diru laguntza justifikatzeko:

- Eskaera orria.
- Diruz lagundutako jardueren ebaluazioa-txostena. (I. eranskina ereduaren arabera)
Ondorengo informazioa jasoko da:
 - Aurkeztutako jardueren betetze maila.
 - Antolatzaileen eta parte hartzaileen datu estatistikoak adina eta sexu-generoaren arabera jasota.
 - Jardueren hizkuntza datuak.
 - Helburuen betetze maila.
 - Genero-ikuspegia txertatuko da balorazioan.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta edo horien fotokopiak. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.
- Jatorrizko fakturak aurkeztuz gero, Koldotxo guraso elkarteari itzuliko zaizkio dagozkion egiaztapenak egindakoan.
 - a) Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:
 - Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
 - Elkarteak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori



egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da. Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako fotokopietan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.
- Salbuespen gisa, legez ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzutan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkotzat bezala, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 125 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketara ez bada jardueraren gastu guztiaren % 25a baino handiagoa:
 - a) Ordainketa data, egitasmoarekin batera antolatzen den datarekin bat etorri beharko dena.
 - b) Ordaindutako zenbatekoa.
 - c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agitzen duenaren identifikazioa.
 - d) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Fakturen edo ordainagiriaren data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

HAMARGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Hezkuntza teknikaria eta Hezkuntza zinegotzia edo berak izendatutako pertsona.
- Koldotxo Guraso elkartearen aldetik: elkartearen lehendakaria.

HAMAIKAGARRENA.- ALDEEK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZETIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bere ez duen aldeari, epe jakin batean bere ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio Jarraipen Batzordeari.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, eta, horren ondoren, hitzarmena suntsituzat joko da.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kalte-ordaina ekarri ahal izango du.



HAMABIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta 2025eko abenduaren 31 arte iraungo du.

HAMAHIRUGARRENA.-IZAERA

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Edorta Zubizarreta Alegria
ESKORIATZAKO UDALAREN ALDETIK

Usune Bengo Flores
KOLDOTXO ELKARTEAREN ALDETIK



ESKORIATZAKO UDALA ETA KOLDOTXO GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

I. eranskina Diruz lagundutako jardueren ebaluazioa-txostena.

JARDUEREN INGURUKO DATU OROKORRAK

1.-Jardueren betetze maila eta informazio orokorra

(zenbat jarduera aurkeztu diren eta horietatik zenbat bete diren)

- 1.- Alluntz Naturara irteera
- 2.- Luis Ezeiza eskola eguna

2.-Datu estatistikako adinari eta sexu-generoari dagokionez:

Sexu-generoa: emakumea, gizona, ez-bitarra

Adina: haurrak, helduak

ALLUNTZ NATURARA IRTEERA

Antolatzaileak:

Adina:			
Sexu-generoa:			
Kopurua:			

Dinamizatzaileak:

Adina:			
Sexu-generoa:			
Kopurua:			

Partaideak:

Adina:			
Sexu-generoa:			
Kopurua:			

LUIS EZEIZA ESKOLA EGUNA

Antolatzaileak:

Adina:			
Sexu-generoa:			
Kopurua:			

Dinamizatzaileak:

Adina:			
--------	--	--	--



Sexu-generoa:			
Kopurua:			

Partaideak:

Adina:			
Sexu-generoa:			
Kopurua:			

3.-Hizkuntza datuak:

JARDUERAREN IZENBURUA: ALLUNTZ NATURARA IRTEERA			
	Euskaraz	Gazteleraz	Elebitan
Dinamizazioa/saioa/tailerra (ahozkoak)			
Saioko materiala (idatzizkoa)			
Difusio edo zabalkunderako materiala			
JARDUERAREN IZENBURUA: LUIS EZEIZA EGUNA			
	Euskaraz	Gazteleraz	Elebitan
Dinamizazioa/saioa/tailerra (ahozkoak)			
Saioko materiala (idatzizkoa)			
Difusio edo zabalkunderako materiala			

JARDUEREN BALORAZIOA

4.-Helburuen betetze maila

(-Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea

-Kultur eskaintza hobetzea

-Hezkuntza, kultura, berdintasuna, ingurumen dibertsitatea eta inklusibitatea bultzatzea.

-Gurasotasun positiboa sustatzea

-Komunitate hezitzailea indartzea eta saretzen laguntzea

-Heldu erreferente positibo gehiago izatea herrian.)